

Kultur agenda

Urriak 18 ostirala
Urriak 27 igandea

Intxaurrondoko Euskal Astea



Joan den astelehenean hasita-ko Intxaurrondoko Euskal Astea azken txanpan dugu. Ostiralean, hilak 18, bertso afari esperimentalak egingo da Artzak Ortzeok elkarteak 21.30ean. Bertan Jon Mala,

Sustrai Colina eta Unai Elizasu bertsolariak ariko dira. Larunbatean haur jolasak izango dira Sagastieder plazan 11.30etik 13.30era eta "Kontu-kantaz" txotxongilo emanaldia eskainiko da Intxaurrondo Berri kultur etxean 17.30ean.

Azkenik, Txan magoak magia emanaldia eskainiko du Txiki tabernan 22.30ean.



EHUKO abesbatzak 25 urte



Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatzak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu aurten. Urtemugaren ildotik, Enrique Azurzak zuzendutako abesbatzak kontzertua eman- go du Miramongo Eguarteetan. Emanaldia larunbatean, hilak 19, izango da, 11.00etan, Euskadiko Orkestraren egoitzan (Miramon pasealekua 124). EHUKO abesbatzak Fanshawe-ren "Afrikan Sanctus" obra interpretatuko du.

Soul doinuak Altxerrin

Hilaren 24an, osteguna, Alvin Youngblood Hart-ek kontzertua emango du Altxerri tabernan (Erregente erregina kalea 2). Oakland-en jaiotako gitarrajole honek 2000. urtean kaleratutako "Start with the Soul" hirugarren diskoaren abes- tiak joko ditu Donostian. Alvin Youngblo- od-ek emanaldi bikoitza eskai- niko du: 20.30ean eta 22.00etan.



Afrikako etorkinen komeriak

Valentziako L'OM Imprebis antzerki tal- deak "La mujer invisible" lana taulara- tuko du Antiguako Lugaritz kultur etxe- an hilaren 18tik 20ra bitartean. 1981ean sortutako antzerki talde honek azken urteetan, besteak beste, "Chiquilladas" eta "En la soledad de los campos de al- godón" obrak antzestu ditu, eta oraingo- an "La mujer invisible" lana- rekin datorkigu. Rita Si- riaka aktore brasilda- rrak Afrikako etorki- nek Europan pairatu behar duten egoera erakusten du antzez- lan honetan. Emanal- diak 20.30ean hasiko dira.

